



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

UDAL PLENO A.- Bilkura ezohikoa  
2015-2019 Udal Korporazioa eratzea eta Alkatea hautatzea

**Eguna:** 2015eko ekainaren 13

**Ordua:** Eguerdiko 12:00ak

**Tokia:** Udaletxeko Pleno Aretoa

**ETORRI DIREN ZINEGOTZI**  
**HAUTATUAK:**

**CONCEJALES ELECTOS**  
**REUNIDOS:**

EAJ-PNV  
koaliziotik:

hauteskunde

zerrendatik

Por la candidatura electoral EAJ-PNV:

Maria Ubarretxena Cid  
Ibon Arrupe Aldecocea  
Juan Ramon Mendieta Garay  
Ander Garay Zabaleta  
Amaia Ceciaga Garmendia  
Juan Carlos Garitano Ezkurra  
Amaia Azpiazu Aranburu  
Anuska Ezkurra Zubizarreta

EH BILDU hauteskunde zerrendatik:

Por la candidatura electoral EH BILDU:



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

Eneko Barberena Mondragon  
Amaia Larrañaga Galdos  
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga  
Maialen Zabaleta Madinabeitia  
Jose Luis Encinas Jose  
Itxaro Artola Lizarralde  
Urki Larrea Ibabe

PSE-EE hauteskunde zerrendatik:

Por la candidatura electoral PSE-EE

Oscar Garcia Horrillo  
Victoriano Fuentes Noguera  
Anabel Legaz Canflanca

SI SE PUEDE BALEIKE ARRASATE  
hauteskunde zerrendatik:

Por la candidatura SÍ SE PUEDE  
BALEIKE ARRASATE

Igor Urizar Mурgoitio  
Eva Abuin Bideburu

IRABAZI - GANAR ARRASATE(EZKER  
ANITZA-IU, EQUO, ALTERNATIVA  
REPUBLICANA, INDEPENDIENTES)  
hauteskunde zerrendatik:

Por la candidatura IRABAZI - GANAR  
ARRASATE(EZKER ANITZA-IU,  
EQUO, ALTERNATIVA REPUBLICANA,  
INDEPENDIENTES)

Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria:

Secretario:

Iñigo Garitano Larrañaga



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

Arrasateko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2015eko ekainaren 13ko eguerdiko 12:00etan bildu dira lehen deialdian, agintaldia bukatzean duen Alkate-Lehendakariak dei eginda, goian zerrendatzen diren zinegotzi hautatuak, 2015eko maiatzaren 24an egindako Udal Hauteskundeetan hautatu direnak, hain zuzen.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Idazkariak, Iñigo Garitano Larrañaga jaunak, Udal Idazkariak.

Idazkariak adierazi du Udala eratzea dela Batzarraldiaren helburua, Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruzko Lege Organikoaren 195.1 artikuluak eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikuluak agindutakoa betetzeko, gai-zerrenda honen arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanet gero, Adineko Mahaia osatuta, Hauteskunde Orokoren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluuan aurreikusitakoa betetzeko, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira **Maria Amaia Azpiazu Aranburu andrea**, zinegotzi hautatueta zaharrena, lehendakari lanetan, **Eva Abuin Bideburu andrea**, zinegotzi hautatueta gazteena, eta Idazkari **Iñigo Garitano Larrañaga jaunak** jardungo du, batzarraldi honetako Idazkaria ere denak.

En el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Mondragón, siendo las doce horas del día 13 de junio de 2015, se reúnen convocados por el Alcalde-Presidente saliente, en primera convocatoria, los/las concejales electos/as que arriba se relacionan, y que han resultado proclamados en las Elecciones Municipales celebradas el día 24 de mayo de 2015.

Asiste y da fé del acto el Secretario D. Iñigo Garitano Larrañaga, que lo es también del Ayuntamiento.

El Secretario da cuenta de que el objeto de esta sesión es la constitución del Ayuntamiento, en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 195.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y artículo 37.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales, conforme al siguiente orden del día:

- Constitución de la Corporación.
- Elección del Alcalde y toma de posesión en su caso.

Abierta la sesión por el Secretario, se procede a formar la Mesa de Edad prevista en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General, que queda integrada por la Concejala electa **Dª. María Amaia Azpiazu Aranburu**, por ser la de mayor edad, que la preside, y por la Concejala electa **Dña. Eva Abuin Bideburu**, por ser la de menor edad, actúa como Secretario **D. Iñigo Garitano Larrañaga**, que lo es también el actuante en esta sesión.



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

Ondoren, Mahaiko Idazkariak aldez aurretik entregatu zaizkion kredentzial guztiak irakurri ditu banan-banan, zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek kredentzial horiek egiaztatu ondoren, Zonako Hauteskunde Batzordeak Udal honi bere garaian bidali zizkion ziurtagiriek bat datozaela ikusten da.

A continuación, el Secretario de la Mesa da lectura a todas y cada una de las credenciales que previamente le han sido entregadas, acreditativas de la personalidad de los Concejales electos y que comprobadas por los miembros de la Mesa con las certificaciones que en su día remitió a este Ayuntamiento la Junta Electoral de Zona, resultan conformes.

Horren arira, Idazkariak informatu du Veronica Lozano Escalonillak, PSE-EEren zerrendan hautatua izan zenak, uko egin diola zinegotzi karguari, eta haren ordez Anabel Legaz Canflanca andreak jaso duela zinegotzi kredentziala, zerrenda horretako 4. hautagaiak.

A ese respecto, el Secretario informa que la electa por la candidatura del PSE-EE Dña. Veronica Lozano Escalonilla ha renunciado a su cargo, por lo que la credencial de concejala ha sido expedida a nombre de Dña. Anabel Legaz Canflanca, que ocupaba el puesto 4º en la citada candidatura.

Aurrekoa egin ondoren, Idazkariak aditzera ematen du zinegotzi hautatu guztiekin, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluak eskatutako aitorpenak, Batzarraldi hau egin aurretik, aurkezteko betebeharra bete dutela.

Realizada la comprobación anterior, por el Secretario se informa que la totalidad de los/las concejales/as electos/as han dado cumplimiento al requisito de presentación, con carácter previo a esta sesión, de las declaraciones requeridas en el artículo 75.7 de la ley 7/1985, de 2 de abril.

Jarraian, eta Mahaiko Lehendakariak proklamazio ordenean deitura, bertan dauden zinegotzi hautatuek Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluak ezarritako zin egitea edo hitza eman dute, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak jasotako

A continuación, y siendo llamados por la Presidenta de la Mesa por el orden de proclamación, los/as concejales/as electos/as asistentes prestan el juramento o la promesa establecido en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del régimen Electoral General, conforme a la siguiente fórmula



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

formula honekin:

***Zin egiten duzue edo hitz ematen, zuen kontzientzia eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zintzo beteko dituzuela zinegotzi karguaren obligazioa, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzuela, Estatuaren oinarrizko araua delako?***

Jarraian zehazten diren zinegotzi hauek hitza eman dute legeak horrela agintzen duelako egiten dutela adieraziz:

Maria Ubarretxena Cid, Juan Ramon Mendieta Garay, Ander Garay Zabaleta, Amaia Azpiazu Aranburu, Eneko Barberena Mondragon, Amaia Larrañaga Galdos, Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga, Maialen Zabaleta Madinabeitia, Jose Luis Encinas Jose, Itxaro Artola Lizarralde, Urki Larrea Ibabe, Igor Urizar Murgoitio.

Jarraian zehazten diren zinegotzi hauek hitza eman dute:

Ibon Arrupe Aldacocea, Amaia Ceciaga Garmendia Juan Karlos Garitano Ezkurra, Anuska Ezkurra Zubizarreta, Oscar Garcia Horrillo, Victoriano Fuentes Noguera, Anabel Legaz Canflanca eta Eva Abuin Bideburu.

Juan Luis Merino Sanabria zinegotziak hitza eman du, baina aurrez hauxe adierazi du “*como ciudadano partidario de un modelo de estado republicano, federal, solidario y laico prometo por exigencia legal*”

establecida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril:

***Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente la obligación del cargo de concejal/a con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?***

Los concejales siguientes han manifestado que prometen, pero que lo hacen por imperativo legal:

Maria Ubarretrxena Cid, Juan Ramon Mendieta Garay, Ander Garay Zabaleta, Amaia Azpiazu Aranburu, Eneko Barberena Mondragon, Amaia Larrañaga Galdos, Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga, Maialen Zabaleta Madinabeitia, Jose Luis Encinas Jose, Itxaro Artola Lizarralde, Urki Larrea Ibabe, Igor Urizar Murgoitio.

Los concejales siguientes han manifestado que prometen:

Ibon Arrupe Aldacocea, Amaia Ceciaga Garmendia, Juan Karlos Garitano Ezkurra, Anuska Ezkurra Zubizarreta, Oscar Garcia Horrillo, Victoriano Fuentes Noguera, Anabel Legaz Canflanca y Eva Abuin Bideburu

El concejal Juan Luis Merino Sanabria ha manifestado que promete, pero previamente ha señalando “*como ciudadano partidario de un modelo de estado republicano, federal, solidario y laico prometo por exigencia legal*”



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

### **KORPORAZIOA ERATZEA**

Aurrekoa egin ondoren eta kontuan izanik hautatu diren Zinegotzi guztiak etorri direla batzarraldi honetara, hau da, legezko gehiengo absolutua, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die bertaratutako zinegotzi hautatuei, eta Korporazioa formalki eratuta deklaratzeko du.

### **CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN**

Realizada la operación anterior y habida cuenta que concurren a esta Sesión la totalidad de los Concejales electos, y por consiguiente la mayoría absoluta legal, la Presidenta de la Mesa de Edad da posesión a los Concejales electos presentes y declara formalmente constituida la Corporación.

### **ALKATEA AUKERATZEA**

Idazkariak adierazten die bertan daudenei, Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Alkatea ere Korporazioa eratu den batzarraldi berean aukeratu behar dela, Lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

- zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira hautagai.
- bertan dauden zinegotzi guztiak dira hautesle.
- botuen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez 11 botu beharko dira.
- botazio honetan gehiengo absolutua lortu ezean ezein hautagaik, botu kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua aldarrikatuko da Alkatea.

Idazkariak informatu Alkategai

### **ELECCIÓN DE ALCALDE**

El Secretario expone a los reunidos que, tal como dispone el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General, en la misma sesión de la constitución de la Corporación ha de procederse a la elección de Alcalde, de acuerdo con el procedimiento establecido en dicho precepto y que es como sigue:

- son candidatos todos los concejales que encabecen las correspondientes listas.
- son electores todos los concejales presentes.
- resultará elegido el candidato que obtenga la mayoría absoluta legal de votos, es decir se precisan 11 votos como mínimo.
- si ningún candidato obtiene en esta votación la mayoría absoluta, será proclamado de modo automático Alcalde, el/la Concejal/a electo/a que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos.

El Secretario informa que se



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

izendatu dira zinegotzi hauek:

proclaman candidatos a Alcalde los siguientes Concejales:

- \* Maria Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)
- \* Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
- \* Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE/PSOE)
- \* Igor Urizar Murgoitio (SI SE PUEDE BALEIKE ARRASATE)
- \* Juan Luis Merino Sanabria (IRABAZI – GANAR ARRASATE)

Idazkariak gutunazal bat eta orritxo bat eman ditzio hautesle bakoitzari; 5 hautagaien izen-deiturak eta horien ondoan koadrotxo bat agertzen dira orritxo horretan. Alkate izateko bozkatzen duen hautagaiari dagokion koadrotxoan gurutze batez markatu beharko dute, eta gero, gutunazal barruan orritxoak tolestuta entregatu beharko dituzte.

Behin txartel guztiak jaso eta gero, botuak zenbatu dira eta Adineko Mahaiko kide Eva Abuin Bideburuk ozen irakurri ditu Alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den Zinegotziaren izen-deiturak, eta emaitza hau izan da:

El Secretario facilita a cada elector/a un sobre y una papeleta en la que figuran los nombres y apellidos de los 5 candidatos, así como un cuadro al lado de cada uno de ellos, con la indicación de que debe marcar con una cruz en el cuadro correspondiente al candidato que vote para Alcalde y entregar las papeletas dobladas dentro del sobre.

Recibidos todos los sobres con sus respectivas papeletas se procede al escrutinio y recuento de votos, leyendo la vocal de la Mesa de Edad Eva Abuin Bideburu, en voz alta el nombre y apellidos del Concejal marcado con una cruz y propuesto para Alcalde en cada papeleta, dando el siguiente resultado:

- \* Maria Ubarretxena Cid (EAJ-PNV): 8 botu /8 votos
- \* Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU): 7 botu / 7 votos
- \* Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE/PSOE): 3 botu / 3 votos
- \* Igor Urizar Murgoitio (SSP BALEIKE):2 botu / 2 votos
- \* Juan Luis Merino Sanabria (IRABAZI): Botu 1 / 1 voto

Botazioaren emaitza ikusirik, eta kontutan izanik bost hautagaietatik inork ez duela ekainaren 19ko Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruz Lege Organikoaren 196. b) artikuluak xedatzen

A la vista del resultado de esta votación, no habiendo conseguido ninguno de los cinco candidatos la mayoría absoluta exigida en el artículo 196.b) de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de



Esp.-kodea: 2015SAPL0009

duen erabateko gehiengoa, 196 artikulu horretako c) atalean xedatutakoari jarraituz, Adineko Mahaiburuak adierazi du EAJ-PNV hauteskunde zerrendaburua, maiatzaren 24ko hauteskundeetan herritarren botu gehien lortu zuena izanik, **Maria Ubarretxena Cid andrea aldarrikatzen dela Arrasateko Alkate.**

Régimen Electoral General, en aplicación de lo previsto en la letra c) del mismo artículo 196, la Presidenta de la Mesa de Edad ha señalado que la concejal cabeza de lista de la candidatura de EAJ-PNV, por haber sido la que obtuvo el mayor número de votos populares en las elecciones locales de 24 de mayo, **Dña. María Ubarretxena Cid es proclamada Alcaldesa de Mondragón.**

Jarraian, Maria Ubarretxena Cid Alkate hautatu andreak adierazi du onartu egiten duela Alkate kargua eta, Hauteskunde Orokorraren Erregimenari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluak ezarritako promesa, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak jasotako formularekin, egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenei ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak

(Momentu horretan. Alkate aldarrikatu izan denak Mahaiburuaren hartu du bere leku, eta orain arte alkate izan den Inazio Azkarragaurizar Larrea jaunaren eskutik zumitzezko uztaila jaso du, udal agintaldiaren aldaketa irudikatzen duena)

Ondoren, Alkateak hitz hauek esan ditu bertaratutako guztiei:

A continuación, la Alcaldesa electa, Dña. María Ubarretxena Cid manifiesta aceptar el cargo de Alcaldesa del Ayuntamiento de Mondragón, y previa promesa establecida en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del régimen Electoral General, conforme a la fórmula establecida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, toma posesión del cargo de Alcaldesa ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

(En ese momento, la proclamada Alcaldesa ocupa la Presidencia del Pleno, y recibe de manos del Alcalde saliente, D. Inazio Azkarragaurizar Larrea el aro de junco, que simboliza el traspaso del mandato del ayuntamiento)

A continuación la Alcaldesa se ha dirigido a los presentes, pronunciando las siguientes palabras:



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0009

---

MARIA UBARRETXENA CID, Alkatea:

*Bai gustatuko litzaidake hitz batzuk esatea. Lehenik eta bebin, eskerrak ematea herritar guztiei, benetan eman diguten aukera honengatik. Gogor egingo dugu lan Arrasateren zerbitzurako eta gaur hemen gustatuko litzaidake hiru mezu helaraztea. Hiru mezu hauek izango dira: kolaborazioa, partehartzea eta gardentasuna eta udal ireki bat.*

*Kolaborazioaren aldetik eskerrak Inaziori eduki duen kolaboratzeko gogo horregatik, mila esker benetan Inazio. Pentsatzen dugu legealdi honetan beste lau urte hauetan ere hori izan behar dela bidea, atmosfera baketsu eta kolaboratsu batetan murgildurik egin behar dugula Arrasaterentzako lana eta baita ere eskertzen diot Inaziori berreskuratu izana makilaren sinbologia. Atzo bildu nintzen berekin udaletxean, bere despatxoan, eta berak esan zidan makilaren sinbologia Arrasaten etena dago, Ardanzen garaitik egiten den gauza da ez da egiten, ezta? Eta bere ideia zan hori berreskuratzea, eta niri iruditu zitzaidan oso ideia ona ze pentsatzen det garai berri batzuk direla eta hemendik aurrera hori izan behar dela bidea eta hori dela Arrasatek merezi duena eta behar duena.*

*Bigarren ideia izango da partehartzea. Hemen bilduta zaudeten talde politiko guztioi eskaintzen dizuet partehartzea eta baita ere Arrasateko herritar guztioi pentsatzen dut zubi sendoak eraiki behar ditugula eta herritarrek ikusi behar dutela instituzioetan partehartzea normaltasunez.*

*Eta azkenik gardentasuna eta udal gobernu sendoa. Pentsatzen dugu Arrasate aurrera ateratzeko gobernu sendo bat behar dugula eta horretarako egin dugu lan inorri atea itxi gabe. Eta benetan eskerrik asko denoi, eta besterik gabe.*

*Bai gustatuko litzaidake baita ere hitza pasatzea*

MARIA UBARRETXENA CID, Alcaldesa:



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0009

---

*norbaitek zer esan nahi baldin badu.*

*Enekok esan zidan atzo beraiek zerbait irakurri nahi zutela eta beste edonorek hitza eskatu nahi baldin badu hitza bere izango.*

Ondoren, Alkateak aukera eman die beste hausteskunde zerrendetako buruei, nahi izanez gero Pleno aretora bertaratutakoei zuzentzeko.

Aukera horretaz baliatu den bakarra Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU) zinegotzia izan da, honako hau adieraziz:

**ENEKO BARBERENA  
MONDRAGÓN (EH BILDU):**

*Eskerrik asko Maria hitza ematearren. Eta eskerrekin jarraituz, eta aprobetxatuta silla honetan gazela, azkeneko legealdian Bildu eta Aralarreko hautetsi izan diren denei eskerrak ematea. Hementxe bertan dago Inazio, hor atzean ikusten dut Joxe, Barrio, Josu, Omer, bueno ba eskerrik asko denei.*

*Uste dut lan ona egin duzuela eta guk oposizioan egon arren, bueno, ba zuen lana jarraitzeko asmoa dantagu. Beti be badakigulako egindako lanaren ardatzak importanteak direla, bau da, gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez edukitzea, herri jasangarri eta atseginagoa izatea, emakumeen eskubideen berdintasuna, erabakitzeko eskubidea edo eta nazio eraikuntza besteak beste.*

*Eta gero enpleguaren inguruari gureko genuke berba ez? Azken finean arrasatear danontzat aukera bera igualtasuna bultzatzea da gure helburutako bat eta dagoen langabezia eta prekaritate laborala lehen lerroan ipintzea. Eta amaitzeko hemen gaz zazpirok zapi batekin, zapi horren arrazoia da Irati taberna beste hainbat herriko taberna moduan ixteko arriskuan dagoela. Guk gureko geunke motibazio politikodun epai keta danak etetea, EH*

A continuación, la Alcaldesa ha ofrecido a los cabeza de lista del resto de candidaturas la posibilidad de dirigirse a los presentes en el salón de Plenos.

El único que ha hecho uso de la citada invitación ha sido D. Eneko Barberena Mondragón (EH BILDU), que ha manifestado lo siguiente:

**ENEKO BARBERENA  
MONDRAGÓN (EH BILDU):**



---

Esp.-kodea: 2015SAPL0009

---

*Bilduren ardura izango da arrasatear danon giza eskubidean alde lan egitea eta gatazkan ondorioak sufritzen ari denen alboan egotea, ez? Bai espetxera bisitan joaten diren familiarren alboan, baita beherri harresietan eserita egoten diren alboan. Guk gura dou etorkizun hobe bat eta hori gaurko lanakin hasten da. Eta ia amaitzeko, zorte ona opa dotzue hemen gurekin zauzien danoi, hautetsi danoi, eta espero dugu lan harreman emankorra eta ia amaitzeko zorionak Mariari.*

Eta hori guztia egin ondoren, Alkate-Lehendakariak amaitutzat eman du Udal Korporazioa eratzeko ekitaldia. Bertaratu diren guztiei eskerrak eman die eta batzarraldia altxatu du Akta honen goiburuan esandako egunean, hamabiak eta hogeitabostean. Eta hori guztia ZIURTATZEN DUT, Idazkaria naiz eta.

Después de todo ello, la Alcaldesa-Presidenta da por finalizado el acto de constitución de la Corporación Municipal, agradeciendo a todos su asistencia al mismo, levantando la sesión a las doce horas y veinticinco minutos del día indicado en la parte superior de esta Acta, de todo lo cual como Secretario CERTIFICO.

Arrasaten, 2015eko ekainaren 13an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

LEHENDAKARIA

Maria Ubarretxena Cid